


# 2020ko ASTE SANTUA – OSTEGUN SANTUA



*Amaos como yo os he amado  
Maitatu elkar nik zuek bezala*



Ostegun Santuz, senide maitasunaren eta zerbitzuaren eguna ospatzen da. Horretarako, Elizak Joanen liburutik hartutako azken afariaren kontaketa proposatzen digu. Eta orain, guri, kontaketa hori eguneratzea dagokigu. Maitasun, emate, zerbitzuzko zein zeinu ikusten ari gara une honetan? Horren inguruan jardungo dugu Jesusekin bakarka eta familian bat egiteko une honetan.

Maitasuna euskarri – Celebrando testimonios de amor



Bilboko  
Elizbarrutia  
DIÓCESIS DE BILBAO

Fede-zabalkunde eta  
Katekesirako Ordezkaritza  
Delegación de  
Anuncio y Catequesis

## 2020ko ASTE SANTUA – OSTEGUN SANTUA

Topaketa hauek egiteko aukeratu dugun etxeko txokan elkartuko gara eta, kandelaz gainera, urez beteriko ontzia eta toalla txiki bat jar ditzakegu erdian.




Denok batera, Azken Afariaren kontaketa eta komentarioa entzungo ditugu 'rezandovoy.org' web orrialdeko umeentzako bertsiotik, egokia baita haur nahiz nagusientzat. Guztira, bederatzi minutuko iraupena du eta lehen sei minutuak entzutea nahikoa da.

Ostegun Santua: Mahairik handiena

<https://rezandovoy.org/reproductor/especial/juevessantolamesamsgrande>

*“Pazko-jaia gainean zen. Jesusek bazekien mundu hau utzi eta Aitarengana joateko ordua iritsi zitzaiona. Munduan ziren beretarrak beti maite izan zituelarik, azkenean bete-betean maitatu zituen. Deabruak Simon Iskarioterren seme Judasi sartua zion buruan Jesus saltzeko asmoa. Jesusek bazekien dena bere esku jarri ziola Aitak, eta Jainkoarengandik etorria zela eta Jainkoarengana zihoala. Afaltzen ari zela, mahaitik jaiki, soingainekoa erantzi eta, eskuzapia harturik, gerrian lotu zuen. Ondoren, ura konketara bota eta ikasleei oinak garbitzen hasi zen, eta gerrian zuen eskuzapiaz lehortzen.*



*Simon Pedrorengana iritsi zenean, honek esan zion: -Jauna, zuk niri oinak garbitu? Jesusek erantzun zion: -Ni egiten ari naizena zuk ez duzu orain ulertzen, geroago ulertuko duzu. Pedrok berriro: -Zuk ez didazu sekula niri oinik garbituko. Jesusek erantzun: -Garbitzen ez bazaitut, ez duzu nirekin zerikusirik izango. Simon Pedrok esan zion: -Jauna, orduan, oinak ez ezik, eskuak eta burua ere bai.*

*Jesusek erantzun: -Bainatu denak ez du garbitu beharrik, erabat garbi baitago, eta zuek garbi zaudete, baina ez denok. Izan ere, bazekien zeinek salduko zuen; horregatik esan zuen: 'Ez zaudete denok garbi'. Oinak garbitu zizkienean, soingainekoa jantzi, berriro mahaian eseri eta esan zien: -Ulertzen duzue egin dizuedana? Zuek Maisu eta Jauna deitzen didazue, eta arrazoi duzue, halaxe bainaiz. Beraz, nik, Jauna eta Maisua naizen honek, zuei oinak garbitu badizkizuet, zuek ere garbitu oinak elkarri. Ikasbide eman dizuet, zuek ere, nik zuekin bezalaxe, joka dezazuen".*

## 2020ko ASTE SANTUA – OSTEKUN SANTUA

### Azalpenak

Ostekun Santuz, Jesusek bere ikasleekin egin zuen azken afaria gogoratzen dugu. Egiptoren murriztatik askatu zirenekoa ospatzen zuten. Pazko-bildotsa jaten zuten. Jesusek afari hartzen ogia eta ardoa bedeinkatu zituen eta bere izenean bil daitezten bakoitzean Bera beraien artean izango dela gogoratzen. Jesus janari, bizi bihurtzen da denontzat. Jesus eta apostoluen afari hori gogoratzen dugu Eukaristian.

Afari horretan, Jesusek keinu esanguratsua egiten die ikasleei: oinak garbitzen dizkie. Eta esanguratsua da, hori bakarrik esklaboek egiten zuten lana zelako. Jesus, bizitzan osoan, guztien zerbitzari agertu zen, guztiak maitatuz eta orain maitasun hori muturreraino eramaten du, azkeneraino iritsi behar duela sentitzen baitu. Pedrok, bere jarrerarekin (“ez dizkidazu inoiz oinak garbituko”), Jesusen keinua ez duela ulertzen erakusten du. Ez da konturatzen Jesusen ikasle izateko ezinbestekoa dela Berak garbitzea, barkatzea, salbatzea... “Ikasbide eman dizuet, zuek ere, nik zuekin bezalaxe, joka dezazuen”.

### Barneratzea eta adierazpena

Eta gu geu, Pedroren antzekoak ote gara? Jesus neure aurrean ere belaunikatzen da; begietara begiratu eta zera diost: “Utz iezadazu oinak garbitzen, utz iezadazu zuregan egiten”. Eta beste hau ere bai: “Egin besteekin zurekin egin dudana”. Zer erantzungo dut? Hitzok bizi bihurtuz. Oinak garbitzearen keinua iraultza da Jainkoa eta giza harremanak ulertzeari dagokionez. Jainkoa belaunikatu egiten da gizakiaren aurrean eta oinak garbitzen dizkio. Alderantzizko Jainkoaren aurrean gaudela dirudi. Ez da Jainko boteretsua, maitasun eta ematez betetakoa baizik.



Bizi dugun une hau bereziki egokia da giza hartu-emanak Jainkoaren ikuspuntutik, emate, maitasun, zerbitzu, zainketatik...- ulertzeko eta gauzatzeko.

## 2020ko ASTE SANTUA – OSTEGUN SANTUA

Jakin dezagun, pentsatu... nori garbi diezazkiokegu gaur oinak?  
Norekin bana dezakegu –besteentzat izan- garen eta  
daukagunetik zerbait? Une honetan, maitasun, emate,  
zerbitzuzko... zein keinu bizi dugu?

A red question mark inside a white square, which is centered within a red speech bubble.A red question mark inside a white square, which is centered within a red speech bubble.A red question mark inside a white square, which is centered within a red speech bubble.

Une batez pentsatu egingo dugu... “La autoridad del servicio” bideoa  
ikusten dugun bitartean. Bi minutuko iraupena du eta esteka honetan  
ikus daiteke:<http://www.quierover.org/watch.php?vid=369938b60>

## 2020ko ASTE SANTUA – OSTEGUN SANTUA

Bideoaren inguruan elkarrizketan jardun eta, nagusi zein txiki, batera jarriko ditugu galdera hauen erantzunak: Zer gertatu zaigu deigarrien ikusi dugunetik? Garbitzeko premia izan dezaketen, edo hobeto esanda, guk geuk garbi ditzakegun, zer nolako oinak ezagutzen ditugu?...

Jesusek, entzun dugun kontaktetan, "oinak garbitzeko", mahaia eta ogia konpartitzeko, ogia bezain onak izateko eskatzen digu. Txanpon beraren bi aldeak diren bi jarrera. Aurreko bideoaren osagarri bezala, Salome Arricibitaren "Dime cómo ser pan" abestia entzun daiteke. (3,21 minutuko iraupena du).

[https://www.youtube.com/watch?time\\_continue=2&v=rQQRt4G9Zb8&feature=emb\\_log](https://www.youtube.com/watch?time_continue=2&v=rQQRt4G9Zb8&feature=emb_log)





### Elkarrekin egiteko

2020 honetan elkarte Eukaristiarik ezin dugunez ospatu eta gure etxeko mahaira beste inor ekartzerik ere ez dugunez, hauxe da gure proposamena: familian 'krep' batzuk egin, ogiaren ordeztu, ogia egitea zailagoa baita. Azken diapositiban aurkituko duzue 'krepak' egiteko errezeta.

Krep horiek erretilu polit batean jarri. Ostegun Santuko afarirako izan daitezke. Afaltzen hasi aurretik, Jesusen keinua gogoratuko dugu Markosen ebanjelioa entzunez. Afaltzen gaudela, gaurko egunean bizi izan dugunaren inguruan elkarrizketan jardungo dugu eta ondorengo galdera honi erantzuten saiatuko gara: "Nor gonbidatuko genuke gure mahaira?"



*“Afaltzen ari zirela, ogia hartu zuen Jesusek eta, bedeinkazioa esan ondoren, zatitu eta eman egin zien, esanez:*

*«Hartzazue, hau nire gorputza da.» Gero, kopa hartu eta, esker onezko otoitza egin ondoren, eman egin zien eta denak edan zuten. Eta esan zien: «Hau nire odola da, Jainkoarekiko ituna berrituko duena, guztiengatik isuria. Benetan diotsuet: Ez dut gehiago ardorik edango, Jainkoaren erreinuan ardo berria edan arte.»”*



## KREP GOZOAK FAMILIAN

### Nola egin:

1.-Arrautzak, esnea, azukrea, gatza eta gurina jarriko ditugu katilu batean. Dena irabiatuko dugu krema homogenea lortu arte.

2.-Irina apurka-apurka bota, iragazki batez bahetuz, pikorrik egin ez dakion; irina bota ondoren, leunki irabiatuko dugu, ore uniforme lortu arte. Tarte batez pausatzen utziko dugu.

3.- Zartagin ertain bat hartu eta gurin apur batez igurtziko dugu, krepeak itsatsi ez daitezen; su-ertain/altuan jarri eta krepe-oretik burruntzali erdi bota.

Bizkor-bizkor, zartagina okertu eta zirkuluan eginez mugitu, oreak azalera guztia hartu daian, hutsunerik utzi gabe eta ahalik eta uniforme eta finen gera dadin.

4.- Krepea egiten hasiko da eta berehala ikusiko ditugu burbuila batzuk eta zartaginetik erraz bereizten dena. Une horretan, buelta eman, beste aldetik egin dadin. Txigorttu samar geratu behar du. Zartaginetik atera eta berdin egin gainerako orearekin. Zenbat eta gehiago egin, orduan eta hobeto aterako zaizkigu.

5.- Bakoitzak bere nahierara apainduko ditu: txokolatea, fruitu gorriak, marmelada... gustukuen duzuenarekin!

### 12-15 krepe egiteko osagaiak:

- 250 gr. irin
- 4 arrautza
- Litro ½ esne
- 50 gr. Irin (giro-temperaturan)
- 10 gr. azukre
- Gatz-apur bat



On egin zuon familia-afarian!